



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita seian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Mozioak honela dio:

“ARRAZOI POLITIKOENGATIKO INDARKERIA ERASOEK EZ DUTE LEKURIK GURE HERRIAN”

Errespetua oinarrizko baldintza da elkarbizitzarako. Herri honek bizi izan ditu garai ilunak, indarkeriaz, beldurrez eta erasoez beteriko urte bortitzak, ustez, atzean utziak genituenak.

Lanketa mardula egin dugu azken urte luzeetan bizikidetzaren alorrean erakunde ezberdinetatik eta alderdi politiko guztien artean, herritarrekin bat eginda ELKARBIZITZAREN ALDE.

Arrazoi politikoengatik, Ibarako EAJ-PNVko zinegotzi bat erasotua eta jipoitua izan zen joan den asteburuan. Lehenik eta behin, biktimari gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diogu eta erabat gaitzetsi nahi dugu gertakaria, horrelako indarkeria erasoek ez dutelako lekuri gure gizartean. Onartezinak dira eta ozen adierazi nahi dugu horrelako erasoek eta erasotzaileek ez dutela lekuri gurean. Horrelako erasoak ezin dira berriro ere gertatu ezta errepikatu. Ez hemen, ez inon.

Ezinbestekoa da, Alderdi Politiko guztiek salatzea era honetako indarkeria erasoak eta gizarteari, herriari, ere eskatzen diogu, horrelako eraso eta jarreraren aurrean erantzuteko: elkar errespetua beharrezkoa delako bizikidetzaren aldeko benetazko urratsak egiteko.

Pertsona guztien giza eskubideekiko daukagun errespetua berretsi nahi dugu.

Atzean utzi behar ditugu garai bateko gertakariak, mehatxuak, erasoak eta irainak, pertsonen ideologia eta militantzia ezin baita erasoen oinarri izan behin ere, gertaera puntual honetan gertatu den bezala.

Benetako bizikidetzaren herritar guztien errespetutik eraiki behar da, baita ere gertatu den eraso tamalgarriaren deslegitimaziotik ere. Batez ere, desberdin pentsatu edo arrazoi politikoengatikoak badira.

Giza eskubideak aldarrikatzen ditugu, beste behin, errespetuan, askatasunean eta elkarbizitzan oinarritutako gizartea eta etorkizuna eraikitzeko.”



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkakoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du " Arrazoi politikoengatik indarkeria erasoek ez dute lekurik gure herrian" izeneko mozioa

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenerekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IPLE0001-Mozioa/Mozioa ()